

Hotelez kanpoko turismo-ostatueta okupazioa
(Landa-turismoa, kanpinak, apartamentuak eta aterpetxeak)
Nafarroako Foru Komunitatea. 2024ko martxoak. Behin-behineko datuak

Nafarroako hotelez kanpoko turismo-establezimenduetan igarotako gauen kopurua % 45,4 igo da martxoan, 2023ko hilabete beraren aldean

2024ko maiatzaren 3a

Bidaiarien kopuruak % 44,0 igo da, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta


MARTXOKO DATUAK

Ostatu-gauak. Hil honetan, guztira 129.627 ostatu-gau izan dira Nafarroako hotelez kanpoko establezimenduetan (landa-turismoa, kanpinak, apartamentuak eta aterpetxeak), hau da, 2023ko hilabete berean baino % 45,4 gehiago.

Kontuan izan behar da aurtengo Aste Santua martxoan izan dela, eta 2023koa apirilean izan zela; hortaz, komeni da apirileko inkestaren emaitzak lortu arte itxarotea, bi hilabeteak batera azter daitezen.

1. GRAFIKOA

Hotelez kanpoko turismo-ostatueta ostatu-gauak. Urte arteko aldakuntza-tasak (%).
2024ko martxoak.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es
848 42 34 00


Bidaiariak. Ostatu hartu duten bidaiarien kopurua % 44,0 igo da aurreko urteko hilabete beraren aldean; beraz, 57.652 dira. Batez besteko egonaldia 2,2 gauekoa da, hau da, % 1,0 igo da aurreko urteko aldi beraren aldean.

URTARRILA/MARTXOA METATUA¹

Ostatu-gauak. Urteko lehen hiruhilekoan, ostatu-gauak % 20,1 hazi dira Nafarroan, 2023ko aldi beraren aldean.

2. GRAFIKOA

Turismo-ostatuetakoko ostatu-gauak. Urte arteko aldakuntza-tasak (%)
2024ko urtarrila/martxo




Bisitariak. Guztira, 106.414 turistek hartu dute ostatu hotelez besteko ostatuetan urtariletik martxora bitarteko aldi metatuan; hau da, aurreko urteko aldi berean baino % 26,4 gehiagok.

1: Kontuan izan behar da 2023ko urtarrilean aterpetxeei buruzko informazioak ez zituela betetzen plazaratzeko behar adina kalitate-irizpide; beraz, hotelez besteko ostatuaren aldakuntza-tasa metatuak kalkulatzeko, ez dira kontabilizatzen hilabete horietako aterpetxe eta kanpinei buruzko datuak.



3. GRAFIKOA

Hotelez kanpoko ostatu-gauak Nafarroan urteko metatuan = **250.091**



Ondoren, hotelez kanpoko ostatu mota bakoitzaren portaera zehaztuko dugu.

LANDA-TURISMOA

Martxoan, landa-turismoko establezimenduetako ostatu-gauak % 16,8ko igoera izan dute aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta.

Bidaiariaren batez besteko egonaldia 2,8 egunekoa izan da, hau da, aurreko urteko aldi berekoa baino % 14,2 handiagoa.

Martxoan landa-turismoko 612 establezimendu eskaini dira, 5.009 plaza ingururekin; joan den urteko martxoan baino % 3,7 gutxiago. Plazen araberako okupazio-maila, % 17,5 inguru izanik, 3,1 portzentaje-puntu igo da 2023ko martxoarekin alderatuta.

866 pertsona aritu dira lanean Nafarroako landa-turismoko establezimenduetan arreta emateko, aurreko urteko hil berean baino % 3,7 gehiago.

Urtarrila/martxoa aldi metatuan, ostatu-gauen kopuruak % 7,8 egin du behera.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es
848 42 34 00



KANPINAK

Kanpinetan igarotako ostatu-gauak % 141,6 igo dira martxoan, 2023ko martxoarekin alderatuta.

Batez besteko egonaldiak % 48,3ko igoera izan du aurreko urteko aldi beraren aldean, eta 4,3 egunekoa izan da.

Martxoan 20 kanpin-establezimendu egon dira zabalik, 12.788 plaza zenbatetsirekin, aurreko urteko martxoan erregistratutakoa baino % 29,3 gehiago.

Nafarroako kanpinetan arreta emateko, 157 pertsona aritu dira lanean, 2023ko martxoan baino % 49,5 gehiago.

Urtarrila/martxoa aldi metatuan, ostatu-gauen kopuruak % 69,0 egin du gora.

TURISMO-APARTAMENTUAK

Nafarroako turismo-apartamentuetan igarotako gauak % 9,2 igo dira martxoan, joan den urteko hilabete berarekin alderatuta.

Martxoko batez besteko egonaldia 2,1 egunekoa izan da pertsona bakoitzeko; 2023ko martxoan erregistratutakoa baino % 30,2 txikiagoa.

Martxoan, 831 apartamentu eskaini dira, 2.467 plaza zenbatetsirekin; alegia, aurreko urtean baino % 5,9 gutxiago.

Turismo-apartamentuen okupazio-maila Nafarroan eskainitako plazen % 36,6ra iritsi da, eta, beraz, 4,6 portzentaje-puntuko igoera izan da aurreko urtearekin alderatuta.

Urtarrila/martxoa aldi metatuan, ostatu-gauen kopuruak % 2,4 egin du gora.



ATERPETXEAK

Martxoan Nafarroako aterpetxeetan igarotako ostatu-gauak % 43,9 igo dira, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta.

Martxoko batez besteko egonaldia 1,3 egunekoa izan da pertsona bakoitzeko; 2023ko martxoan erregistratutakoa baino % 7,4 txikiagoa.

Martxoan, 70 establezimendu egon dira zabalik, 3.219 plaza zenbatetsirekin; alegia, aurreko urtean baino % 0,6 gehiago.

Aterpetxeen okupazio-maila Nafarroan eskainitako plazen % 32,4ra iritsi da, eta, beraz, 9,7 portzentaje-puntuko igoera gertatu da aurreko urtearekin alderatuta.

1. TAULA

Bidaiariak eta ostatu-gauak Nafarroako turismo-establezimenduetan. 2024ko martxoa

		Bidaiariak	Egoiliarak	Ez-egoiliarak	Ostatu-gauak	Egoiliarak	Ez-egoiliarak	Batez besteko egonaldia
Landa-turismoa	2024ko martxoa	9.784	8.971	814	27.189	25.538	1.651	2,8
	Urteko aldakuntza (%)	2,3	7,4	-32,7	16,8	32,3	-58,6	14,2
Kanpinak	2024ko martxoa	9.675	8.029	1.646	41.390	37.689	3.701	4,3
	Urteko aldakuntza (%)	62,9	50,4	174,8	141,6	132,3	307,6	48,3
Apartamentuak	2024ko martxoa	13.805	12.098	1.707	28.545	22.097	6.448	2,1
	Urteko aldakuntza (%)	56,3	64,7	14,9	9,2	20,1	-16,8	-30,2
Aterpetxeak	2024ko martxoa	24.388	12.964	11.424	32.503	20.655	11.848	1,3
	Urteko aldakuntza (%)	55,3	120,5	16,3	43,9	64,0	18,5	-7,4
Hotelez kanpokoak	2024ko martxoa	57.652	42.062	15.591	129.627	105.979	23.648	2,2
	Urteko aldakuntza (%)	44,0	56,2	18,8	45,4	59,3	4,4	1,0

Iturria: Geuk egina, INEK emandako datuak oinarri hartuta.

* Behin-behineko datuak.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Hotelez kanpoko turismo-ostatuetako okupazioaren inkesta. 2024ko martxoa.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00